

Ondasunen esportazioen kopurua % 11,7 jaitsi da 2023ko abuztuan Euskal AEn, eta inportazioen kopurua % 16,9

Urteko metatuak positiboa izaten jarraitzen du, % 0,6ko aldakuntza izan baitu joan den urtearekin alderatuta, eta superabita 3.100 milioi eurotik gorakoa izan da

Euskal AEko ondasunen **esportazioek** (1.916 milioi euro), 2023ko abuztuan, joan den urteko hil beraren aldean, % 11,7ko jaitsiera nominala izan dute, produktu energetikoen % 33,4ko jaitsieraren ondorioz, funtsean, baina ez-energetikoez ere joera bera izan dute eta % 8,9ko jaitsiera izan dute, Eustaten datuen arabera.

Inportazioen kasuan (1.860 milioi) ere jaitsiera izan da, % 16,9koa oraingoan. Inportazio ez-energetikoez % 13,4 egin dute behera, eta energetikoez, % 24,5; jaitsiera hori azken horiei ez dagokie, baldin eta urtetik urterako alderaketa inportatutako tonen arabera egiten badugu. Hala, 2022ko abuztuan, 821.951 izan ziren eta, aurtengo hil berean, 922.728; alegia, % 12,3 handitu da.

Merkataritza-saldoa positiboa da eta 56,1 milioi euro ingurukoa; hala, estaldura-tasa % 103,0 da.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Abuztua 2023

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Abuztua			Abuztua		
	2022	2023	Gehikuntza (%)	2022	2023	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETE, GUZTIRA	2.170.436	1.916.357	-11,7	2.238.077	1.860.257	-16,9
ENERGIAZKO GAIK	246.367	164.197	-33,4	694.403	524.097	-24,5
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIK	1.924.068	1.752.160	-8,9	1.543.674	1.336.160	-13,4
URTEKO METATUA	21.389.005	21.512.484	0,6	19.362.969	18.342.964	-5,3
ENERGIAZKO GAIK	1.893.827	1.028.458	-45,7	5.660.076	4.659.008	-17,7
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIK	19.495.178	20.484.026	5,1	13.702.893	13.683.956	-0,1
ARABA / ÁLAVA						
HILABETE, GUZTIRA	439.502	399.757	-9,0	292.935	295.406	0,8
URTEKO METATUA	5.967.276	6.767.402	13,4	3.714.302	4.022.678	8,3
BIZKAIA						
HILABETE, GUZTIRA	991.303	856.825	-13,6	1.521.043	1.191.390	-21,7
URTEKO METATUA	8.889.135	8.082.634	-9,1	11.856.999	10.797.870	-8,9
GIPUZKOA						
HILABETE, GUZTIRA	739.631	659.774	-10,8	424.099	373.461	-11,9
URTEKO METATUA	6.532.594	6.662.448	2,0	3.791.669	3.522.416	-7,1

Data 2023ko Urriaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Abuztu honetan, Euskal AEko esportazioen kasuan, lurralde guztiek izan dituzte tasa negatiboak: -% 9,0 Araban, -% 13,6 Bizkaian eta -% 10,8 Gipuzkoan.

Aldiz, Gipuzkoan eta, bereziki, Araban metatutako urtetik urterako tasak positiboak izan dira (% 2,0 eta % 13,4, hurrenez hurren). Hileko esportazio ez-energetikoak Araban % 9,1 jaitsi dira; Bizkaian % 6,9, eta Gipuzkoan % 11,0. Esportazio energetikoak, Bizkaian, % 34,0 jaitsi dira, joan den urteko hil berarekin alderatuta.

Araban, esportazioak *“Garraio-materialean”* kontzentratu dira (guztizkoaren % 35,1) eta % 10,0 jaitsi dira (140,3 milioi esportatu, guztira), bai eta *“Metalak eta haien manufakturak”* adarrean ere (guztizkoaren % 18,7), % 36,3 jaitsi baitira; bi *“arantzel-sekzio”* horiek izan dira hileko garrantzitsuenak. Hazkundera handiko partida bat, hil honetan ere, *“Materiala, makinak eta aparatu elektrikoak”* izan da (% 38,5); haren esportazioek 45,1 milioi euroko balioa izan dute.

Gipuzkoan, nazioarteko merkataritzaren hiru laurden (% 74,5) hiru arantzel-sekziotan kontzentratu dira; hala ere, portaera desberdinak izan dituzte urtetik urterako alderaketan: *“Materiala, makinak eta aparatu elektrikoak”* (% 20,8), *“Garraio-materiala”* (-% 31,9) eta *“Metalak eta haien manufakturak”* (-% 22,4).

Bizkaiaren kasuan, honako sekzio hauetan esportazioen igoera izan da: *“Materiala, makinak eta aparatu elektrikoak”* (% 23,8) eta *“Plastikoak eta kautxua”* (% 19,8). Baina atzera egin dute nabarmen *“Produktu mineral eta energetikoak”* (-% 33,1), joan den urteko hil berean baino 82 milioi euro gutxiagorekin, eta 166,5 milioi izan dituzte guztira; alegia, 116.395 tona gutxiago.

Jatorri-helmugako herrialdeak, 2023ko abuztua

2023ko abuztuan, bost herrialdek (Frantzia, Alemania, Estatu Batuak, Erresuma Batua eta Portugal) eratu dute Euskal AEn bezero nagusien taldea; esportatutako guztizkoaren % 47 hartzen dute (900,4 milioi). Haietako hiru EB27koak dira; entitate horri % 59,6 dagokio.

Frantzia helmuga duten **esportazioak** 303,9 milioi eurokoak izan dira, eta *“Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinetan”*, *“Ibilgailu automobilen zati eta osagarrietan”*, *“Kautxuzko pneumatiko berrietan”* eta *“Petrolioaren olio finduetan”* kontzentratu dira (24,7 milioi, 24,3 milioi, 23,8 milioi eta 21,8 milioi, hurrenez hurren), guztira 642 produktutarako.

Alemaniak 415 produktu-mota jasotzen ditu (241,6 milioi euro dagozkie), eta automobilgintzarekin lotutakoak nabarmentzen dira: *“Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak”* (33,7 milioi), *“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak”* (25,4 milioi), *“Kautxuzko pneumatiko berriak”* (23 milioi) eta *“Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak”* (13 milioi).

Estatu Batuak, 160,8 milioirekin, hirugarren posizioan daude, eta honako hauetan dira nagusi esportazioak: *“Petrolioaren olio finduak”* (28,5 milioi), *“Biodiesela eta haren nahasteak”* (19,5 milioi), *“Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak”* (11,6 milioi) eta *“Turborreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, beren piezak eta osagaiak barne”* (10,9 milioi); guztira, 338 produktu.

Erresuma Batuari, hil honetan, Euskal AEko esportazio guztien 104,1 milioi dagozkio; haietatik, 12,1 milioi *“Turborreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, beren piezak eta osagaiak barne”* dira, 8,2 *“Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak”* eta 7,3 milioi *“Kautxuzko pneumatiko berriak”*; guztira, 378 produktu.

Portugalera 90 milioi euroko balioan esportatzen da, eta hil honetan eginiko transakzioetan *“Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak”* (6,6 milioi) eta *“Xaflen bidez eraikuntzak, barrak, profilak, tutuak eta antzekoak, fundizio, burdina edo altzairuzkoak”* (4,5 milioi) nagusitu dira, besteak beste; guztira, 550 produktu.

Errusiara eginiko esportazioak (3,6 milioi) honako honetan oinarritzen dira, funtsean: “Adreiluak, baldosak eta antzeko gainerako eraikuntzako zeramika-piezak, erregogorrak (silize-lur fosil edo antzekoetakoak izan ezik)” (1,2 milioi) eta “Ontziak eta paketatzeako aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko eta etiketatzeako makinak” (0,8 milioi); guztira, 23 produktu-mota.

Gure **inportazioen** % 50, hil honetan, EB27tik irten dira. Herrialde esanguratsuenen artean Alemania nabarmentzen da (219,6 milioi); batez ere, “Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak” (26,2 milioi) eta “Beroan laminatutako produktu lauak, aleatu gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, 599 mm-tik gorako zabalerakoak” (12,7 milioi). EBtik kanpo, Estatu Batuak nabarmentzen dira, 215,9 milioirekin; haietatik, 112 “Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak”; 51 milioi “Petrolioaren olio finduak”, eta 27,3 milioi, “Soja-babak, baita hautsiak ere”. Txinatik inportatutako produkturik garrantzitsuenak “Akumulagailu elektrikoak eta haren zatiak” izan da, 5,8 milioirekin; guztira 136,2 milioi izan dira. Frantziara gehien eskatutako produktua “Galdaketako, burdinazko edo altzairuzko txatarra” izan da, 23,3 milioirekin; guztira, 132,3 milioi izan dira. Iraki erositako ia guztia “Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak” izan da (81 milioi) eta, guztira, 110,3; gainerakoa, 29,2 milioi, “Petrolioaren olio finduena” izan da.

Errusiatik 3,8 milioi euroko balioan inportatu da, funtsean, “Ongarri mineral edo kimiko nitrogenatuak” (1,3 milioi) eta “Animaliak elikatzeako erabiltzen diren prestakinen motakoak” (0,8 milioi).

Inportazio energetikoak, hil honetan, honela banatu dira: 237,9 milioi Amerikatik (% 45,4) eta haietatik 163 milioi Estatu Batuetakoak eta 75 milioi Mexikokoak; % 114,1 milioi Asiatik (% 21,8) eta haietatik gehienak Irakekoak (110,3 milioi); 92,2 milioi Europatik (% 17,6) eta haietatik 31,2 Italiakoak, 19,4 Maltakoak, 6,4 Herbehereetakoak eta 33,8 “Zehaztu gabekoak baina Europar Batasunekoak diren herrialde eta lurraldeetakoak”; Afrikatik 79,8 milioi inportatu dira (% 15,2), eta haietatik 62,6 Nigeriatik datoz, eta 17,1 Aljeriatik.

2023ko abuztuan merkaturatutako produktuak

Produktuak 4 digitu kontuan hartuz aztertuz gero, 2023ko abuztuan ikusten da hamar **arantzel-partida** nagusiek **esportazioen** % 35,1 kontzentratu dutela; baterako balioa 672,4 milioi euro izan da.

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Abuztua 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	2.170.436	1.916.357	100,0	-11,7
Automobilentzako zati eta osagarriak	165.947	168.442	8,8	1,5
Petrolioaren olio finduak	226.683	128.941	6,7	-43,1
Kautxuzko pneumatiko berriak	85.941	112.075	5,8	30,4
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	61.032	62.458	3,3	2,3
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	28.857	52.550	2,7	82,1
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	45.140	36.819	1,9	-18,4
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	38.084	31.604	1,6	-17,0
Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak	0	27.723	1,4	-
Turboareaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	17.019	26.296	1,4	54,5
Burdina edo altzairuzko gainerako enbriaturak	32.078	25.457	1,3	-20,6
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	10.549	25.148	1,3	138,4
Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	49.944	24.386	1,3	-51,2
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsaletarako	78.558	23.855	1,2	-69,6
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste enbriatura moldeatu batzuk	28.170	22.442	1,2	-20,3
Arrain izoztua xerratu gabe	14.377	22.184	1,2	54,3
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	48.676	20.924	1,1	-57,0
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	20.486	19.716	1,0	-3,8
Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisuan % 70etik beherako edukiarekin	8.657	19.484	1,0	125,1
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketaerako euskarriak	13.589	19.163	1,0	41,0
Kobre findu gabe; flintze elektrolitikoak kobre anodoak	17.773	18.526	1,0	4,2
Metal arruntzeko giltzarriak, sarraila, morrolo eta giltzak	17.446	17.790	0,9	2,0
Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicioen-eta, burdinako edo altzairuzko antzeko	20.490	16.373	0,9	-20,1
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	41.945	16.298	0,9	-61,1
Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	16.177	16.087	0,8	-0,6
Beste enbriatura batzuk gogortu gabeko kautxu bulkanizatuak	12.954	16.048	0,8	23,9

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Urriaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Talde honen barruan nabarmentzekoak dira hiru partidetan izan diren igoerak: *“Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak”* (27,7 milioi esportatu), *“Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako”* (% 82,1eko igoera eta 52,6 milioi esportatu) eta *“Kautxuzko pneumatiko berriak”* (% 30,4 eta 112,1 milioi); kontrara, *“Petrolioaren olio finduen”* jaitsiera handia (–% 43,1) nabarmentzen da, joan den urteko hil berean baino 97,7 milioi gutxiagorekin.

25 esportazio-partida nagusietatik, hamabik hazkunde-tasa negatiboak izan dituzte; nagusien artean, aipatutakoaz gainera, honako hauek nabarmentzen dira: *“Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsaletarako”* (–% 69,6), *“0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafila eta tirak”* (–% 61,1) eta *“Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak”* (–% 57,0).

Inportazioen kasuan, eta arantzel-partida garrantzitsuenen kasuan, hazkunde esanguratsuenak honako hauetan izan dira: *“Petrolioaren olio finduak”* (% 209,7 eta 173,1 milioi inportatu) eta *“Soja-babak, baita hautsiak ere”* (% 119,4 eta 57,5 milioi euro inportatu).

Kontrara, pisu espezifiko gehienekoak, *“Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak”* (guztizkoaren % 17,7), behera egin du inportazioan, % 17,9 (2022ko hil berean baino 71,7 milioi inportatu gutxiago), 329 milioiko guztizko erosketetarako. Halako joera negatiboa *“Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoak”* ere izan du (21,1 milioi inportatu), % 90,4 egin baitu behera.

ARABA. Esportazioak 2023ko abuztuan

Esportazioek, Araban, % 9,0 egin dute behera, joan den urteko hil berarekin alderatuta. Portaera negatibo hori hamar arantzel-partida nagusietako zazpitan gertatu da. Hala, “*Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak*” (36,4 milioi) partidak % 19,2 egin du behera, eta “*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*” (52,2 milioi esportatu) % 11,9 behera. Baina ehunekorik handienak honako hauetan izan dira: “*Hodlak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak*” (–% 47,0) eta “*Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak*” (–% 59,3). Hala ere, “*Kautxuzko pneumatiko berriak*” % 20,4 igo dira, 44,4 milioi esportaturekin.

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Abuztua 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	439.502	399.757	100,0	-9,0
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	59.193	52.159	13,0	-11,9
Kautxuzko pneumatiko berriak	36.886	44.420	11,1	20,4
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	45.023	36.363	9,1	-19,2
Automobilentzako zati eta osagarriak	36.877	35.865	9,0	-2,7
Hodlak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	34.637	18.374	4,6	-47,0
Ardoa, mahats freskoarena	14.609	11.343	2,8	-22,4
Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satellite eta ibilgailu espazialen zatiak	9.461	8.887	2,2	-6,1
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	17.767	7.235	1,8	-59,3
Bonbak, granadak, torpedoak, minak, misilak, kartuxoak eta gainerako munizioak, jaurtigaiak eta horien zatiak	3.607	6.576	1,6	82,3
Garraiatzeko edo ontziratzeko beirazko ontziak	4.405	6.092	1,5	38,3

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Urriaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

BIZKAIA. Esportazioak 2023ko abuztuan

Bizkaiko lurralde historikotik egin diren esportazioak % 13,6 jaitsi dira. “*Petrolioaren olio finduak*”, Bizkaiko esportazioen rankingeko lehen partida jaitsieraren arduraduna da; % 43,9 jaitsi da; 126,5 milioiko esportazioa izan du eta, joan den urteko hil berean, 225 milioi. Beraz, 98,8 milioi gutxiago. Arantzel-partida nagusien artean, “*Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinen*”, “*Kautxuzko pneumatiko berrien*” eta “*Biodieselaren eta haren nahasteen*” esportazioen igoera nabarmentzen dira.

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Abuztua 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	991.303	856.825	100,0	-13,6
Petrolioaren olio finduak	225.269	126.457	14,8	-43,9
Automobilentzako zati eta osagarriak	67.902	68.422	8,0	0,8
Kautxuzko pneumatiko berriak	48.516	67.043	7,8	38,2
Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak	0	27.723	3,2	-
Turboreaktoreak, turbopropultsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	16.964	26.285	3,1	54,9
Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	47.917	23.142	2,7	-51,7
Arrain izoztua xerratu gabe	13.462	21.087	2,5	56,6
Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisan % 70etik beherako edukiarekin	8.657	19.484	2,3	125,1
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikorako kobre anodoak	17.773	18.526	2,2	4,2
Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	18.868	17.729	2,1	-6,0

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Urriaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

GIPUZKOA. Esportazioak 2023ko abuztuan

Gipuzkoako esportazioek % 10 egin dute behera hil honetan. % 100etik gorako hazkundeak egiaztatu dira honako hauetan: “Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako” (% 121,1eko hazkundera eta 41,6 milioi esportatu) eta “Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiatzaileak, etab.” (% 180,2). Jaitsierak, funtsean, honako hauetan izan dira: “Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetaarako” (–% 69,6), eta “Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak” (–% 58,8).

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Abuztua 2023

	2022	2023	2023 (%)	2023/2022 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	739.631	659.774	100,0	-10,8
Automobilentzako zati eta osagarriak	61.168	64.155	9,7	4,9
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	18.831	41.638	6,3	121,1
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetaarako	78.558	23.855	3,6	-69,6
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraigailuak, etab.	7.828	21.936	3,3	180,2
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	46.303	19.094	2,9	-58,8
Metal arruntezko giltzarriak, sarraila, morroilo eta giltzak	16.645	16.427	2,5	-1,3
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	14.738	16.014	2,4	8,7
Burdina edo altzairuzko gainerako enbaturak	14.131	15.881	2,4	12,4
Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	13.904	15.096	2,3	8,6
Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak	19.282	14.864	2,3	-22,9

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Urriaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

2023KO METATUA (URTARRILA-ABUZTUA): ondasunen esportazioek % 0,6 egin dute gora; merkataritza-saldoak 3.169,5 milioi euroko superabita izan du, eta estaldura-tasa % 117,3 izan da

2023ko lehen zortzi hiletan, Euskal AEko **esportazioek** % 0,6ko igoera izan dute, joan den urteko aldi beraren aldean; alegia, 123,5 milioi euro gehiago. Aldi horretan, zenbateko esportatzailea 21.512,5 milioi izan da, eta kopuru horri Bizkaia egin dio ekarpenik handiena, 8.082,6 milioi (guztizkoaren % 37,6); gero, Arabak (6.767,4 milioi) eta, ondoren, Gipuzkoak (6.662,4 milioi).

Arabako esportazioek 800,1 milioi euroko hazkundera izan dute urte artean, 2022ko aldi berarekin alderatuta, eta % 13,4ko erlatiboa. Gipuzkoan, igoera askoz ere moderatuagoa izan da (% 2,0 eta 2022an baino 129,9 milioi gehiago); Bizkaian, berriz, bilakaera negatiboa izan da, 806,5 milioi euro gutxiagorekin; alegia, % 9,1eko jaitsiera izan da.

Esportatutako produktu-mota kontuan izanik, egiaztatu da bilakaera positiboa izan dutela “Produktu ez-energetikoak”, 988,8 milioi gutxiagorekin, baina ez da hala izan “Produktu energetikoen” kasuan, 2022ko abuztura arte metatutakoaren % 45,7 txikiagoak izan baitira (865,4 milioi gutxiago).

Euskal AEko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera, urteko metatua (p). Abuztua 2023

	Kodea	Izendapena	Mila euro
		ESPORTAZIOAK GUZTIRA	21.512.484
1	8703	10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	1.958.476
2	8708	Automobilentzako zati eta osagarriak	1.492.430
3	8704	Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	1.385.960
4	4011	Kautxuzko pneumatiko berriak	984.842
5	2710	Petrolioaren olio finduak	849.820
6	7304	Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	513.761
7	7216	Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	461.592
8	8481	Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	376.528
9	9990	Aduana-tarifari berariaz jasota ez dauden merkantziak	297.943
10	7326	Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturrak	280.192
11	8603	Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako	265.247
12	7228	Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	255.582
13	7222	Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	251.413
14	1518	Erabileraren tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	201.912
15	8504	Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	194.612
16	7325	Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatutako batzuk	186.952
17	7606	0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafak eta tirak	186.266
18	8411	Turborreaktoreak, turbopropulsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	185.733
19	7308	Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicio-eta, burdinako edo altzairuko antzeko	185.644
20	0303	Arrain izoztua xerratu gabe	185.266
21	8428	Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	184.038
22	8607	Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	182.723
23	7306	Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	179.133
24	8483	Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak, etab.	162.702
25	8301	Metal arruntzako giltzarrapo, sarriala, morroilo eta giltzak	154.903

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Urriaren 19a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Hamar produkturik salduenak (arantzel-partidak) 8.601,5 milioi kontzentratu dituzte, guztizkoaren % 40; haietatik bostek hazkunde-tasa positiboak izan dituzte 2022ko aldi beraren aldean. Horien guztien artean, “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” nabarmentzen dira, Euskal AEko bolumen esportatzaile handiena izaten jarraitzen baitute, 1.958,5 milioi esportarekin; alegia, % 26,9ko hazkundea izan dute. “Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak” ere nabarmentzen dira (1.386,0 milioi), % 21,7ko hazkundearekin. “Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak”, “Kautxuzko pneumatiko berriak” eta “Ibilgailu automobilen zati eta osagarriak” partidek % 20,5eko, % 18,9ko eta % 7,5eko hazkundeak izan dituzte, hurrenez hurren, eta aldi horretako garrantzitsuenen artean portaera bikainenak.

Jaitsiera esanguratsuenetan, berriz, honako hauek nabarmentzen dira: “Petrolioaren olio finduak” (–% 51,4 eta 897,1 milioi gutxiago 2022an baino); ez dira prezioen jaitsierarekin soilik justifikatzen, esportatutako tonatan ere jaitsiera esanguratsua izan baitute, % 43,4, 2022an 2.067.913 tona izatetik 2023ko metatua 1.170.413 izatera igaro baitira.

Gure esportazioen helmuga-herrialdeen sailkapenean, aztertutako aldian, Alemania da herrialde hartzaile nagusia, guztizkoaren % 16,2rekin. Alemaniaren ondoren, Frantzia (% 15,1), Estatu Batuak (% 7,7), Erresuma Batua (% 6,4) eta Italia (% 5,6) daude, eta, hala, bost herrialdeek esportazioen % 51 hartzen dute.

Euskal AErako **inportazioen** metatua 18.343 milioi euro ingurukoa da. Zifra hori urtetik urtera alderatuz gero, 2022ko aldi berean erregistratutakoa baino 1.020 milioi baxuagoa dela ikusten dugu. Bizkaian (10.797,9 milioiko balioa duten inportazioak) % 8,9ko beherakada egon da, alegia, joan den


urteko aldi berean baino 1.059,1 milioi gutxiago. Gipuzkoak % 7,1eko jaitsiera izan du eta 269,3 milioi euro gutxiago, eta inportatutakoaren balioa 3.522,4 milioi izan da. Azkenik, Araba da inportazioen igoera izan duen lurralde bakarra; zehazki, % 8,3 egin dute gora inportazioek, joan den urtean baino 308,4 milioi gehiagorekin, eta, aldi horretan, 4.022,7 milioi eurora iritsi da.

“Produktu energetikoen” inportazioa joan den urteko aldi berekoa baino % 17,7 baxuagoa da, eta “Produktu ez-energetikoen” –% 0,1.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2023ko lehen zortzi hiletan, 3.169,5 milioi euroko saldo positiboa izan du, eta aldeko estaldura-tasari eustea dakar (% 117,3).

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Milioi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

EUSKAL AE-K ISRAELEKIN DUEN KANPO-MERKATARITZA

Euskal AEk Israelekin izan duen ondasunen kanpo-merkataritzak, 2022an eta 2023ko lehen zortzi hiletan, 172,4 milioi euroko saldo positiboa izan du lehen kasuan, eta 162,2 milioikoa bigarren

2022. urtean, Israelera eginiko esportazioak 195,4 milioi eurokoak izan ziren; alegia, esportatutako guztizkoaren % 0,6 eta, hala, ranking esportatzaileko 28. posizioan izan zen. 2023ko lehen zortzi hiletan, herrialde horretara eginiko esportazioak 178,1 milioikoak izan dira (% 0,8) eta rankingeko 20. posizioan dago.

Denbora-aldi horietan, Israeletik eginiko inportazioak guztizkoaren % 0,08 izan dira 2022an (23,0 milioi, 68. posizioan), eta, 2023ko lehen zortzi hiletan, % 0,09 (15,9 milioi, eta postu bera rankingean).

Israelekin merkaturatzen ditugun produktuen analisi bat egiten badugu, ikusiko dugu esportazioetan 2022. urtean esportatutako produktu nagusiak garraio-materialaren sektorean izan direla; hala, haietako garrantzitsuena *“Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulstsuetarako”* izan da (guztizkoaren % 22,6) 44,2 milioi esportaturekin, eta, orain arte, 2023. urtean, rankingeko lehen posizioan dagoela, 46,7 milioirekin (guztizkoaren % 26,2).

Produktu horren ondoren, *“Hamar pertsonako edo gehiagoko garraiorako ibilgailu automobilak, gidaria barne”* dago (guztizkoaren % 17,6 eta 34,4 milioi esportatu), 2023an 35,3 milioirekin orain arte (guztizkoaren % 19,8); oraingoan ere bigarren posizioan. Hirugarren postuan, 2022. urtean, *“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak”* izan ziren, 12,1 milioi esportaturekin; produktu hori 2023an bosgarren posizioan dago, 10,3 milioirekin. Rankingeko laugarren postuan, 2022an, *“Ibilgailu automobilen karrozeriak, kabinak barne, baina motorrik gabeak”* (11,3 milioi), zeina 2023an seigarren posizioan baitago, 6,1 milioirekin. Israelera esportatutako automobilgintzaren ranking horren azken posizioan *“Motorrarekin ekipatutako ibilgailuen txasisak”* dago (9,8 milioi 2022an), zeina 2023an hirugarren postura igo baita, 17,0 milioirekin.

2023ko metatuan, mota horretako beste produktu bat agertu da lehen posizioetan: *“Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak”* (10,3 milioi).

Israeletik datozen inportazioetatik, nabarmendu behar dugu zazpi produktu baino ez zirela iritsi, 2022an, milioi bat eurora. Lehenik eta behin, *“Xafalak, laminak, geruzak, orriak eta tirak, plastiko ez-zelularrekoak eta beste gai batzuekin konbinatu gabe”* partidaren inportazioak daude (guztizkoaren % 20,4 eta 4,7 milioi euro); 2023an ere, oraingoan, posizio berean dago, 2,7 milioiko metatuarekin. Bigarren posizioan *“Barrak, profilak eta alanbrea, nikelezkoak”* zeuden (% 11,8 eta 2,7 milioi); 2023an hamargarren posiziora jaitsi dira, 375 mila eurekin.

2022ko hirugarren posizioan *“Kobrezko zakarrak eta hondakinak”* izan ziren, 2,5 milioirekin (guztizkoaren % 10,9), zeinak 2023an laugarren posizioan baitaude, 1,2 milioirekin. Produktu horien ondoren, honako hauek izan dira: *“Aluminiozko zakarrak eta hondakinak”* (2,3 milioi 2022an eta 1,5 milioi 2023an), *“Medikuntza, kirurgia, odontologia, oftalmologia edo albaitaritzako tresnak eta aparatuak”* (1,7 milioi 2022an), *“Oihala metalikoak, sareak eta alanbrezko burdin sareak, nikelezkoak eta beste inon sailkatu gabeko nikelezko gainerako enbriaturak”* (1,4 milioi) eta *“Turborreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne”* (1,1 milioi). 2023ko orain arteko metatuan, azken produktu hori bigarren posizioan dago, 2,1 milioirekin.

Bi aldi horietan, Israelekiko merkataritza-balantzea positiboa da; 2022an 172,4 milioiko gure aldeko saldoarekin eta % 850,2ko estaldura-tasarekin. 2023ko metatuan, joera bera izaten ari da, gure aldeko saldoarekin; orain arte, 162,2 milioi euro eta % 1.119,3ko estaldura-tasa.

Informazio gehiago:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

[Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz](#)

[Prentsa-zerbitzua: \[servicioprensa@eustat.eus\]\(mailto:servicioprensa@eustat.eus\)](#) Tel.: 945 01 75 62